# GORABIDE

Nº 311 Zk.
2022EKO AZAROA
NOVIEMBRE DE 2022

ADIMEN DESGAITASUNA | DISCAPACIDAD INTELECTUAL
BIZKAIA



INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

Zaintzailearentzako laguntzak
Apoyos para la persona cuidadora
pg. 4 or.



Familientzako tailerrak
Talleres para familiares
pg. 6 or.



Ospakizuna Bilbao Basketekin
Celebración con el Bilbao Basket
pg. 8 or.




# Marrazketa-lehiaketaren erakusketa inauguratu dugu

# Inauguramos la exposición del concurso de dibujo



## Euskaliten film laburren lehiaketan saria irabazi dugu [5. or.]

## Ganamos un premio en el concurso de cortos de Euskalit [pg. 5]


60RABIDE

ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA
ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
Licenciado Poza 14, 2 - 48011 Bilbao | Tel. 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
gorabide.com | facebook.com/gorabide | twitter.com/gorabide | youtube.com/gorabide | instagram.com/gorabide



Laguntzen du
Colabora
Bizkaia foru aldundia diputación foral

# Inauguramos la exposición del concurso de dibujo escolar, en BBK Kuna

## Los trabajos estarán expuestos hasta el 23 de noviembre, y los cinco finalistas permanecerán hasta diciembre

Dentro del programa de nuestro 60 aniversario, hemos inaugurado la exposición del concurso de dibujo escolar, en el que han participado más de 400 estudiantes de colegios de Bizkaia. Puede verse hasta el 23 de noviembre, en horario de 9:00 a 21:00, en el espacio Muelle de BBK Kuna (c/ Urazurrutia nº 3 de Bilbao).

Un jurado compuesto por cuatro personas con discapacidad intelectual ha sido el encargado de escoger el dibujo ganador y los finalistas. Además, el montaje de la exposición lo han realizado personas usuarias de los grupos de Ocio y Tiempo Libre de Gorabide, acompañadas de personas voluntarias. Para ello, han utilizado paneles cedidos por Elorrixa Elorrioko Ekologi Taldea.

**Aiala Bilbao, ganadora**

En el acto de inauguración, premiamos el dibujo ganador del concurso, realizado por Aiala Bilbao, de Lauaxeta Ikastola de Amorebieta-Etxano, que simboliza “que nadie es perfecto y, por una cosa u otra todos somos diferentes. Y la inclusión social es una buena forma de sentirnos todos cómodos en este mundo”. Kepa Oyarzabal y Enara Martínez, en representación de las personas con discapacidad intelectual, le entregaron un maletín de dibujo de 122 piezas. Y Ana Mota, integrante del jurado, reconoció el trabajo realizado en los dibujos finalistas de Nora Erezuma, del Colegio Sagrado Corazón de Bermeo; Gorka Díez, del Colegio Vizcaya de Zamudio; Mª Mercedes Villela, de Lamiako Eskola de Leioa; y Uxue Blanco, de San Félix Ikastola de Ortuella.

**Agradecimiento y elogio**

Por su parte, Txema Franco, director gerente de Gorabide, dio las gracias y la enhorabuena a quienes han participado en el concurso, porque “es muy importante que las niñas y los niños que vais a ser personas adultas en el futuro sepáis que las personas con discapacidad intelectual tienen sueños, ilusiones, necesidades, deseos y derechos como los vuestros. Y que sólo necesitan apoyos para poder conseguirlos”. Y elogió “las actitudes y los valores que transmiten estos dibujos, que demuestran que sois personas accesibles”.

> Aiala Bilbao Olabarri, de Lauaxeta Ikastola, ha ganado el concurso de dibujo escolar que hemos organizado por nuestro 60 aniversario. En este concurso, han participado más de 400 estudiantes. Todos los dibujos que hemos recibido se pueden ver en BBK Kuna hasta el 23 de noviembre.









Los ayuntamientos de Artzentales y Markina-Xemein se han sumado a la celebración del 60 aniversario organizando recepciones institucionales a nuestra asociación.

Artzentales eta Markina-Xemeingo Udalek bat egin dute 60. urteurrenaren ospakizunarekin gure elkarteari harrera instituzionalak antolatuz.



NOVIEMBRE DE 2022 | Nº 311 Zk | 2022EKO AZAROA GORABIDE

# Eskola-marrazketa lehiaketaren erakusketa inauguratu dugu, BBK Kunan

## Lanak azaroaren 23ra arte egongo dira ikusgai, eta bost finalistak abendura arte mantenduko dira

Gure 60. urteurreneko programaren barruan, eskola-marrazketa lehiaketaren erakusketa inauguratu dugu. Bertan Bizkaiko ikastetxetako 400 ikasle baino gehiagok parte hartu dute. Erakusketa azaroaren 23ra arte izango da ikusgai, 9:00-21:00 bitartean, BBK Kunako Moila espazioan (Urazurrutia kalea 3, Bilbo).

Adimen desgaitasuna duten lau pertsonez osatutako epaimahaia izan da marrazki irabazlea eta finalistak hautatzeaz arduratu dena. Gainera, erakusketaren muntaketa Gorabideko Aisia eta Astialdeko taldeetako erabiltzaileek egin dute, pertsona boluntarioek lagunduta. Horretarako, Elorrixa Elorrioko Ekologi Taldeak lagatako panelak erabili dituzte.

**Aiala Bilbao, irabazle**

Inaugurazio-ekitaldian lehiaketa irabazi duen marrazkia saritu genuen, Amorebieta-Etxanoko Lauaxeta Ikastolako Aiala Bilbaok egindakoa eta “inor ez dela perfektua eta, dena delakoagatik, guztiok garela desberdinak. Eta gizarteratzea mundu honetan guztiok eroso sentitzeko modu egoki bat dela” adierazten duena. Kepa Oyarzabalek eta Enara Martinezek, adimen desgaitasuna duten pertsonak ordezkatuz, 122 pieza jasotzen dituen marrazketa-maletatxo bat eman zioten. Eta Ana Motak, epaimahaikideak, Bermeoko Bihotz Sakratua Ikastetxeko Nora Erezumak, Zamudioko Bizkaia Ikastetxeko Gorka Diezek, Leioako Lamiako Ikastolako Mª Mercedes Villelak eta Ortuellako San Felix Ikastolako Uxue Blancok egindako lana aitortu zuen, beren marrazkiekin finalera iritsita baitira.

**Eskertza eta gorespena**

Bestalde, Txema Francok, Gorabideko zuzendari gerenteak, eskerrak eta zorionak eman zizkien lehiaketan parte hartu dutenei, izan ere, “oso garrantzitsua da etorkizunean pertsona heldu izango zareten haurrok jakin dezazuen adimen desgaitasuna duten pertsonek zuenen moduko ametsak, ilusioak, premiak, nahimenak eta eskubideak dituztela. Eta laguntzak baino ez dituztela behar horiek lortzeko”. Eta goretsi egin zituen “marrazki horiek, pertsona irisgarriak zaretela erakusten dutenek, transmititzen dituzten jarrera eta balioak”.

> Lauaxeta Ikastolako Aiala Bilbao Olabarrik irabazi du gure 60. urteurrenean antolatu dugun eskola-marrazketa lehiaketa. Lehiaketa honetan, 400 ikasle baino gehiago parte hartu du. Jaso ditugun marrazki guztiak ikusgai daude BBK Kuna espazioan azaroaren 23ra arte.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Recursos de apoyo a personas cuidadoras

Desde que se publicó el Decreto Foral que regula el estatuto de las personas cuidadoras y la prestación económica para cuidados en el entorno familiar, la Diputación Foral de Bizkaia ha puesto en marcha varias medidas para la atención y mejora de la calidad de vida de las personas cuidadoras de personas dependientes.

1. **Compatibilizar la PECEF con la atención en centros de día, centros ocupacionales y empleo:** Las personas usuarias de estos servicios son beneficiarias de la prestación económica para el cuidado en el entorno familiar (PECEF). Los requisitos fundamentales para percibir esta prestación son:
    - Que la persona dependiente (en grado I, II o III) tenga prescrita esta prestación en su Programa Individual de Atención (PIA) y esté empadronada en Bizkaia.
    - Que la persona cuidadora principal y habitual (no profesional y con vínculo familiar) esté empadronada en el mismo domicilio.
2. **Pago de la cuota de la seguridad social de las personas cuidadoras:** La Administración General del Estado abona la cuota de cotización a la Seguridad Social. Este convenio especial está dirigido a personas designadas como cuidadoras no profesionales en el PIA. Es necesario que no esté dada de alta en la Seguridad Social en ningún régimen a tiempo completo ni en desempleo. Y, si tiene más de 65 años, que no sea titular de una pensión de jubilación, incapacidad permanente y/o viudedad.
3. **Descanso de 15 dias al año:** Se garantiza un descanso de 15 días al año en residencias privadas mediante una prestación económica vinculada al servicio. Este recurso es incompatible con otras estancias residenciales en centros públicos.
4. **Productos de apoyo orientados a facilitar el cuidado (Gizatek):** Existe un catálogo de productos de apoyo subvencionables, para aumentar la autonomía personal y facilitar el cuidado.
5. **Programa Zainduz:** Actuaciones de prevención y apoyo psicosocial para adquirir conocimientos y técnicas que faciliten el autocuidado.

# Zaintzaileei laguntza emateko baliabideak

Zaintzaileen estatutua eta familia eremuko zainketengatiko prestazio ekonomikoa arautzen duen Foru Dekretua argitaratu zenetik, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat neurri jarri ditu martxan mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzeko eta pertsona horiei arreta emateko.

1. **FEZPE delako prestazioa bateragarri egitea eguneko zentro, zentro okupazional eta enplegu zentroetako arretarekin:** Zerbitzu horien erabiltzaileak familia eremuko zainketarako prestazio ekonomikoaren onuradunak dira (FEZPE). Prestazio hori jasotzeko funtsezko baldintzak honakoak dira:
    - Mendekotasuna duten pertsonak (I, II edo III gradukoa) prestazio hori preskribatuta edukitzea bere Banakako Arreta Programan, eta Bizkaian erroldatuta egotea.
    - Zaintzaile nagusi eta ohikoa dena (ez profesionala, eta lotura familiarra duena) etxe berean erroldatuta egotea.
2. **Zaintzaileen gizarte segurantzako kuota ordaintzea:** Estatuko Administrazio Nagusiak Gizarte Segurantzari ordaintzen dio kotizazio kuota. Hitzarmen berezi hau Banakako Arreta Programan zaintzaile ez profesional gisa izendatuta dauden pertsonei zuzendua dago. Beharrezko baldintza da Gizarte Segurantzan lanaldi osoko erregimenean edota langabezian alta emanda ez egotea. Eta 65 urtetik gorakoa izatekotan, ez izatea erretiro-pentsio baten, ezgaitasun iraunkorraren edota alarguntsa-pentsioaren titularra.
3. **Urtean 15 egunez atseden hartzea:** Egoitza pribatuetan urtean 15 egunez atseden hartzeko aukera bermatzen da, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten bidez. Baliabide hori ez da bateragarria zentro publikoetako beste egoitza-egonaldi batzuekin.
4. **Zaintza-lana erraztera bideratutako laguntza-produktuak (Gizatek):** Zaintza errazteko eta autonomia pertsonala handitzeko diruz lagun daitezkeen babeseko produktuen katalogoa dago..
5. **Zainduz Programa:** Autozainketa errazten duten ezagutza eta teknikak eskuratzeko prebentzio-ekintzak eta laguntza psikosoziala.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# Aisia eta Astialdiaren bideo batek irabazi du Euskaliten film laburren lehiaketako sari bat

## Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astean, Plena Inclusiónekin eta Fevasekin batera Kalitate Osoko Ereduaren aurkezpena ere antolatu genuen










Gure boluntarioei eskerrak emateko Aisia eta Astialdiak prestatutako bideoak irabazi du Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astearen baitan Euskalitek antolatutako 'Kudeaketa Laburrean' lehiaketako publikoaren saria. Lana Legoko figurak eta piezak erabilita prestatu zuten, 'stop motion' teknikarekin eta jendeak emandako botoen %25 lortu ditu.

Bestalde, Europako Astearen baitan, Plena Inclusión eta Fevasekin batera, Kalitate Osoko Eredu berria aurkezten lagundu genuen. Ekitaldian, politika publikoen eta gizarte-zerbitzuen kudeaketa aurreratua landu genuen Eusko Jaurlaritzako, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eskubide Sozialen Estatuko Idazkaritzako ordezkariekin. Gainera, eredu berriaren araberako lehen akreditazioak banatu zituzten –besteak beste, Futubideri– eta Ebaluazio Taldearen lana aitortu zuten. Eta Javi Barrutia, ebaluatzaile gisa prestatu den gure elkartearen lehen erabiltzailea, talde horretako kidea da. Amaitzeko, Plena Inclusiónek aitorpena egin zigun adimen desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien alde 60 urteko elkarte-mugimendu eskertzeko.

# Un vídeo de Ocio y Tiempo Libre gana un premio en el concurso de cortos de Euskalit

## Durante la Semana Europea de la Gestión Avanzada, también hemos organizado con Plena Inclusión y Fevas la presentación del Modelo de Calidad Plena

Un vídeo de agradecimiento a nuestro voluntariado, que han realizado desde Ocio y Tiempo Libre, ha ganado el premio del público del concurso 'Gestión en Corto' que organiza Euskalit dentro de la Semana Europea de la Gestión Avanzada. El trabajo, realizado con piezas y figuras de Lego mediante la técnica 'stop-motion', ha logrado el 25% de los votos populares.

También en la Semana Europea, colaboramos con Plena Inclusión y Fevas en la presentación del nuevo Modelo de Calidad Plena. En el acto, se abordó la gestión avanzada en las políticas públicas y los servicios sociales, con representantes de Gobierno Vasco, Diputación Foral de Bizkaia y Secretaría de Estado de Derechos Sociales. Además, se entregaron las primeras acreditaciones según el nuevo modelo –entre ellas, a Futubide–, y se reconoció el trabajo del Equipo de Evaluación, del que forma parte Javi Barrutia, el primer usuario de nuestra asociación que se ha formado como evaluador. Por último, Plena Inclusión nos otorgó un reconocimiento, en agradecimiento a 60 años de movimiento asociativo en favor de las personas con discapacidad intelectual y sus familias.

# Zer behar duzu... eta zer eskain dezakezu?

## Familientzako gure tailerrek topaketarako eta partaidetzarako guneak eskaintzen dituzte, eta erakundeko beste familia batzuekin lotura sortzen laguntzen dute

Gorabideko beste familia batzuekin partekatu nahiko zenukeen abileziaren bat al duzu? Kontaguzu! Senideentzat familiek dinamizatutako tailerren bidez, topaketarako eta partaidetzarako gunea sortu eta erakundeko beste familia batzuekin lotura sortzen lagundu nahi dugu. Proposamenak bidaltzera animatzen zaitugu. Zure inplikazioa oso balio garrantzitsua da eta familien arteko laguntza da gure nortasun-ezaugarrietako bat.

Adibidez, Anak, gure erabiltzaileetako baten senideak, 'Hariez harago trikotatzen' tailerra dinamizatu du. Eta "oso garrantzitsua da bakoitzak eskain dezakegun horrekin elkartea egiteko familien inplikazioa berriro ere bultzatzearen ideia", iruditu zaio. Kasu honetan, "kakorratz-lanaren tailerra aitzakia bikaina izango da taldea egiteko eta gure artean Gorabidez hitz egiteko: nola sortu zen, zer egoera duen gaur egun eta etorkizunean zer izatea espero dugun", esan du..

### Jasotzea eta laguntzea

Partaidetza Asoziatibotik, familiak beren bizitzako etapa bakoitzean biltzen ditugu, senide gehiagorekin lotzeko beharrari erantzuten saiatuz eta elkartean zein komunitatean parte hartzeko bideak bultzatuz. Hala, familiak laguntza jaso dezake, baina baita eman ere. Izan ere, ematea partekatutako kausa batean murgiltzea ere bada, bizitza-esperientziak trukatzea eta gainerakoentzat denbora bihurtzea.

gorabide.com/partaidetza-asoziatiboa
Tel. 94 443 12 10



# ¿Qué necesitas... y qué puedes aportar?

## Nuestros talleres para familiares ofrecen espacios de encuentro y participación, y ayudan a crear vínculo con otras familias de la entidad

¿Tienes una habilidad que quieres compartir con otras familias de Gorabide? ¡Cuéntanos! A través de talleres dinamizados por familiares para familiares, buscamos generar un espacio de encuentro y participación, y ayudar a crear vínculo con otras familias de la entidad. Te animamos a que nos hagas llegar propuestas. Tu implicación es un valor importante; y el apoyo mutuo entre las familias, una de nuestras señas de identidad.

Por ejemplo, Ana, hermana de una de nuestras personas usuarias, ha dinamizado el taller 'Tejiendo más allá de los hilos'. Y le ha parecido "muy interesante la idea de volver a impulsar la implicación de las familias para hacer asociación, cada una con lo que podamos aportar". En este caso, cree que "el taller de ganchillo servirá como excusa para hacer grupo y poder charlar entre nosotras de Gorabide, cómo se formó, cómo está en estos momentos y cómo esperamos que sea en un futuro".

### Recibir y dar apoyo

Desde Participación Asociativa, acompañamos a las familias en cada etapa de su vida, tratando de responder a la necesidad de vincularse con más familiares y favorecer canales de participación tanto en la asociación como en la comunidad. Así, la familia puede recibir apoyo, pero también darlo. Y es que dar también es entregarnos a una causa compartida, intercambiar experiencias de vida y transformarlo en tiempo para el resto.

gorabide.com/participacion-asociativa
Tel. 94 443 12 10








# Gure 60. urteurrenaren kudeaketa iraunkorra, jardun ona Partekatu Sarean eta Binklusion Sarian

Gure 60. urteurrenaren diseinu, kudeaketa eta hedapen iraunkorra Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskalit erakundeak deitutako lehendabiziko Jardun Onen Binklusion Sariketako finalera iritsi da. Epaimahaiak gure kostu apaleko eta inpaktu handiko ospakizun-proposamenaren berrikuntza, eraginkortasuna eta iraunkortasuna balioetsi ditu, beste erakunde batzuen aldetik errepikatua izateko erraztasunarekin batera.

Gainera, proiektu hau Partekatu Sareko azken topaketan aurkeztutako jardun interesgarrienetako bat izan da, Adimen desgaitasunaren arloko beste bederatzi erakundeekin parte hartu dugularik. Aurkezpenean haren ikuspegi, estrategia, diseinu, plangintza eta hedapenaren nondik norakoak azaldu ditugu, gure interes-taldeak balioan jarri eta ahalik eta inpaktu handiena lortzeko baliagarri izan zaizkigunak.

# La gestión sostenible de nuestro 60 aniversario, buena práctica en Binklusion y la Red Compartir

El diseño, gestión y despliegue sostenible de nuestro 60 aniversario ha quedado finalista del primer Premio Buenas Prácticas Binklusion, convocado por la Diputación Foral de Bizkaia y Euskalit. El jurado ha valorado la innovación, efectividad y sostenibilidad de nuestra propuesta de celebración de bajo coste y alto impacto, así como la facilidad para ser replicada en otras organizaciones.

Además, este proyecto ha sido una de las prácticas de interés presentadas en el último encuentro de la Red Compartir, en la que participamos con otras nueve entidades de la discapacidad intelectual. En la presentación, explicamos su enfoque, estrategia, diseño, planificación y despliegue, que nos han servido para poner en valor a nuestros grupos de interés y conseguir el máximo impacto posible.

## LABURRAK BREVES

### Hitzarmena la Caixa Fundazioarekin

Lankidetza-hitzarmen bat sinatu dugu la Caixa Fundazioarekin. Haren ondorioz 29.080 euroko dirulaguntza bat jasoko dugu Redes de Participaci-ON programarako. Elkarren arteko laguntza familiaren bizi-kalitateari begira, haren gizarte arloko deialdien barruan. Programa horrek gure familiei zuzendutako laguntza natural eta profesionalen inguruneak ahalbidetuko ditu.

### Convenio con Fundación la Caixa

Hemos firmado un convenio de colaboración con Fundación la Caixa, por el que recibiremos una subvención de 29.080 euros, para el programa Redes de Participaci-ON. Apoyo mutuo para la calidad de vida familiar, dentro de sus convocatorias sociales. Este programa favorecerá entornos de apoyos naturales y profesionales dirigidos a nuestras familias.

### Behin-behineko izendapena

Gure zuzendaritza-batzordeak Ana Maria Etxebarria Ocerin izendatu du behin-behinekoz diruzain modura, 2023an egingo den bazkideen hurrengo asanbladan berretsi bitartean.

### Nombramiento provisional

Nuestra junta directiva ha procedido al nombramiento provisional de Ana María Etxebarria Ocerín como tesorera, hasta que se produzca la ratificación en la próxima asamblea de socias y socios que se celebrará en 2023.

GORABIDE

NOVIEMBRE DE 2022 | Nº 311 Zk | 2022EKO AZAROA

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).




**Bilbao Basketek ere bat egin du gure 60. urteurrenaren ospakizunarekin eta gure elkarteko ordezkari batzuk gonbidatu ditu Miribillan jokatu duten lehen partidara.**

**El Bilbao Basket también se ha sumado a la celebración de nuestro 60 aniversario, invitando a una representación de nuestra asociación al primer partido en Miribilla.**

# PARTAIDETZA ASOZIATIBOA

Azaroan, gure **Zurekin Programa**ren barruan, gizarte-baliabideei buruzko webinario bat eskainiko dugu, osteguna 10ean, 18:00etan. Gure Kafeak Kide Artean ekimeneko hiru taldeekin jarraituko dugu: adin aurreratukoen ahizpak eta koinatua, eta gazteen eta helduen amak. 'Harietatik harago ehuntzen' izeneko familiei zuzendutako tailerrekin jarraituko dugu. Hilaren 12an, Enkarterrietako Museoa bisitatuko dugu Ondo Pasa Familian jardueren barruan. Halaber, senideen arteko topaketak antolatu ditugu Barakaldon (hilak 15), Basaurin (hilak 22), Bilbon (hilak 28) eta Getxon (hilak 29). Eta **Ongizate Programa**rekin jarraituko dugu, Deustuko Unibertsitatearekin.

**Informazio gehiago eta izen-emateak:**
Emma Ballús. Teléfonoa 94 443 12 10
emmaballus@gorabide.com

## GIZARTE-ERALDAKETA

Sentsibilizazio-hitzaldiak EHUn, Almi Akademian eta Albiz Eskolan.

## AUTOGESTIO PROGRAMA

- Osteguna 3, 18:00etan. Mariaren Bihotza Plaza, z/g.
- Asteazkena 23, 18:00etan. Barrainkua kalea, 5.

# PARTICIPACIÓN ASOCIATIVA

En noviembre, dentro de nuestro **Programa Contigo**, ofrecemos un webinario sobre recursos sociales, el jueves 10, a las 18:00. Continuamos con los tres grupos de Cafés en compañía: hermanas y cuñado de personas en edad avanzada, y madres de jóvenes y de personas adultas. Seguimos con el taller para familias 'Tejiendo más allá de los hilos'. El sábado 12, dentro de las actividades Diviértete en familia, visitamos el Museo de las Encartaciones. También organizamos encuentros de familiares en Barakaldo (día 15), Basauri (día 22), Bilbao (día 28) y Getxo (día 29). Y continuamos con el **Programa Ongizate**, con la Universidad de Deusto.

**Más información e inscripciones:**
Emma Ballús. Teléfono 94 443 12 10
emmaballus@gorabide.com

## TRANSFORMACIÓN SOCIAL

Charlas de sensibilización en la UPV-EHU, la Academia Almi y el Colegio Albiz.

## PROGRAMA DE AUTOGESTIÓN

- Jueves 3, a las 18:00. Plaza Corazón de María, s/n.
- Miércoles 23, a las 18:00. c/ Barrainkua nº 5.

D.L./L.G. BI-394-2014